

## IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<b>Titulua:</b> ERIZAINZAKO GRADUA	<b>Mota:</b> Erizaintzako Zientziak
<b>Ikasgaia:</b> Erizaintzaren oinarri metodologikoak	<b>Eskolen kronograma:</b> 1. lauhilekoa
<b>Kodea:</b> 26446	<b>Hizkuntza:</b> Euskara/Gaztelania
<b>Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua</b> Irakasgai honek ikasleari pertsonen funtsezko beharren arteko lotura ulertzen laguntzen dio, alderdi biologiko, emozional, sozial eta espiritualak elkarrekin uztartuz, horiek guztiek azaltzen baitituzte pertsonaren autozainketa-jokabideak osasun-gaixotasun egoeretan. Gainera, ikaslea arrazoibide kliniko eta terapeutikoan sartzen du, Erizaintzako graduko irakasgai teoriko eta praktikoa guztietan judizio profesionalak egitea ahalbidetzen duena.	<b>ECTS kredituak:</b> 6  <b>Kurtsoa:</b> 2. maila
<b>Sartzeko eskakizunak/gomendioak</b> Ez dago	

### IRAKASLEAK

### Tel.

### Helbide elektronikoa

Irakasgaiaren arduraduna	Tel.	Helbide elektronikoa
M <sup>a</sup> Dolores Calle Calle	945218085	mdolores_calle@ehu.eus
<b>Euskerazko lerroko irakasleak</b>		
Jagoba Zarandona Calvo	945 219002	jagoba_zarandona@ehu.eus
Ainhoa Ulibarri Ochoa		AINHOA.ULIBARRIOCHOA@osakidetza.eus

## GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Balorazio sistematikoak egitea hainbat kasu praktikotan, datu gakoak identifikatuz eta zainketa arloak detektatzeko faktoreak hautatuz.
- G2. Iritzi klinikoak ematea, arrazonamendu diagnostiko eta terapeutikoa aplikatuta kasu praktikoen ebazpenean.

## ZEHARKAKO GAITASUNA

- ZG. Kritikan eta gogoetan oinarrituta ikastea: Nork bere buruari galderak egiteko eta egoerei erantzuteko gaitasuna, informazioari zentzua emanez, prozesu kreatiboen, intuitiboen, logikoen, analitiko... bidez, etenik gabeko prozesu bat izanik (Snyder,1993, Alfarok aipatuta, 2017).



## IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Zainketa-behar bakoitzaren erregulazio-prozesua azaltzen du, prozesu horretan pertsonaren borondatezko ekintzak identifikatuz, interbentzioak ondorioztatu ahal izateko.
- IE2. Kasu praktikoetan dependentzia-adierazleak bereiztu eta faktoreak identifikatzen ditu, bizi-zikloa kontuan hartuta.
- IE3. Planteatutako egoerari egokitutako eta lanbide-eremuarekiko koherentea den informazioa jasotzen du
- IE4. Erizaintzako prozesuaren fase eta azpifase ezberdinak identifikatzen ditu.
- IE5. Arrazonamendu diagnostikoa egiten du balorazioan oinarrituta.
- IE6. Arrazonamendu terapeutikoa egiten du erizaintzako diagnostikoarekin koherentzian.
- IE7. Egoerak analizatzen ditu posizionamendu kritiko eta gogoetatsuaz baliatuz.
- IE8. Terminologia profesionala erabiltzen du hizkuntza egokia aplikatuz.
- IE9. Gogoetatsu eta errespetuz parte hartzen du eta ikasketarekiko konpromisoa erakusten du.

## EDUKIAK

Denboraren araberako gai-zerrendaren antolaketa zehatza ikusteko, eGelan eskuragarri dagoen kronograma kontsultatu.

### I. UNITATEA: ERIZAINZAKO PROZESUA. FUNTSEZKO BEHARREN BALORAZIOA.

- 1.1. Sarrera: Virginia Hendersonen ereduaren aurkezpena. Oinarrizko beharren balorazioa.
- 1.2. Kanporatzeko beharra.
- 1.3. Modu egokian jateko eta edateko beharra.
- 1.4. Arnasa hartzeko beharra.
- 1.5. Mugitzeko eta gorputz-jarrera egokia izateko beharra.  
*Mintegia (2 ordu): Kanporatzeko, jateko eta edateko, arnasa hartzeko eta mugitzeko beharren jarduerak.*
- 1.6. Arropa egokia aukeratzeko beharra: janzteia eta eranztea.
- 1.7. Gorputz-tenperatura muga normalen barruan izateko beharra.
- 1.8. Lo egiteko eta atsedena hartzeko beharra.
- 1.9. Garbi eta txukun egoteko eta tegumentuak babesteko beharra.
- 1.10. Besteekin komunikatzeko beharra.  
*Mintegia (2 ordu): Janzteko, termoerregulaziorako, lo eta atsedena hartzeko, garbi eta txukun egoteko eta tegumentuak babesteko eta komunikatzeko beharren jarduerak.*
- 1.11. Arriskuak saihesteko beharra.
- 1.12. Bere sinesmen eta balioen arabera bizi izateko beharra.
- 1.13. Errealizazio pertsonalaren zentzua ematen dion zereginen batean aritzeko beharra.
- 1.14. Jolasteko eta dibertimenduzko jardueretan parte hartzeko beharra.
- 1.15. Ikasteko beharra.

Mintegia (2 ordu): Arriskuak saihesteko, sinesmenen eta balioen arabera bizitzeko, errealizazio pertsonalerako, dibertimenduzko jardueretan parte hartzeko eta ikasteko beharren jarduerak.

Mintegia (2 ordu): Balorazio integrala pertsona ospitaleratuta edo etxean dagoenean.

## II. UNITATEA: ERIZAINZAKO PROZESUAREN APLIKAZIOA. ARRAZOIBIDE KLINIKOA ETA ERABAKIAK HARTZEA.

2.1. Arrazoitze klinikoari sarrera. Balorazioa.

*Ikasgelako praktika (2 ordu): Datuak antolatzea eta datuak osatzea.*

2.2. Prozesu diagnostikoa. Arrazoitze diagnostikoa eta arrazoitze terapeutikoa. NANDA taxonomia.

*Ikasgelako praktika (2 ordu): Hendersonen beharren arabera balorazioa vs Gordon-en patroiak vs NANDAren eremuak.*

*Ikasgelako praktika (2 ordu): Arrazoitze diagnostikoa.*

*Ikasgelako praktika (2 ordu): Arrazoitze terapeutikoa.*

2.3. Judizio terapeutikoaren planifikazioa. NOC taxonomia. NIC taxonomia.

2.4. Egitea.

2.5. Zainketa-prozesuaren ebaluazioa.

*Ikasgelako praktikak (9 ordu): Kasuak ebaztea.*

*Mintegia (4h): NANDAren eremuen arabera balorazioa, NOC taxonomia eta NIC taxonomia OSANAIA plataformaren bitartez*

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE TEORIKO ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK (*talde osoa 2 azpitaldetan banatu)	IKASGELAKO PRAKTIKA ORDUAK
I	Jagoba Zarandona Calvo .	34	8 (*talde osoa 2 azpitaldetan banatu)	0
II	Ainhoa Ulibarri Ochoa .	16	-	17
	Blanca Nieves Gallejones Albuerne	-	4	-
GUZTIRA IKASLEARENTZAT		<b>50</b>	<b>12</b>	<b>17</b>

## METODOLOGIA

Ikasgai honetan, askotariko irakaskuntza-metodologiak erabiltzen dira, planteatutako gaitasunak garatzeko.

Ezagutza metodologia aktiboen bidez eraikiko da, ikaslea ikaskuntza indibidualean eta talde-mailakoan inplikatzeko:

- **Klase teorikoak:** Eskola teorikoak emango dira, eta ikasleen parte-hartzea bultzatuko da beharren erregulazio-prozesuetako mapa mentalak egitean eta erizaintzako prozesuaren nozio teorikoetan. Era berean, ikaskuntza kooperatiboaren estrategia erabiliko da kasu praktikoak ebazteko eta arrazoibide kritikoko gaitasunak garatzeko. Etengabeko ikasketa bultzatzeko, test-moduko proba txikiak egingo dira, ikasleak etengabe ikasitakoa baloratu ahal izan dezan.

- **Mintegiak:** Talde osoa talde txikiagotan banatuko da mintegietan, eztabaida piztuko duten galderei erantzutea sustatzeko. Horrek ikasleei ustezko arazo profesionalak bideratzeko aukera emango die, hautabide ezberdinak bilatzeko eta ebazpenak proposatzeko testuinguru baten arabera.
- **Ikasgelako praktikak:** Ikasgelako praktikak era sekuentzian planifikatuko dira arrazonamendu klinikoaren fase ezberdinak ikasiko diren heinean, ezagutzak aplikatzeko eta erabaki hartzea lantzen hasteko, horretarako hainbat kasuen ebazpen praktikoan oinarrituta.

Ikasketa aktibo hau osatzeko, ikasle bakoitzak irakasgai honen irakasleriari tutoretzak eska dakizkioke. Eskaera hori irakasleri kontaktatuz egin diezaioke, telefonoz edo posta elektronikoz.

LAN PRESENTZIALA (79 ORDU)			
klase teorikoa	Mintegia	Tailerra	Ikasgelako praktika
50	12	-	17

LAN EZ-PRESENTZIALA (75 ORDU)		
Gidatutako lana	Jarduerak egitea	Kasuen ebazpena
35	20	20

GUZTIRA	
ECTS	6
ORDUAK	154

## EBALUAZIO-SISTEMA

### Idatzizko komunikazioa:

Gaitasun hori Titulazioaren ikasgaietan ebaluatzen da irizpide honekin: «idatzizko lan eta ebaluazio-proba guztietan, ortografia eta sintaxi akatsak kopuruaren arabera zigortuko dira; gehienez, 0,5 puntu kenduko dira».

### OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Ebaluazio jarraituaren modalitateari atxikiz gero, mintegi guztietara, balorazioaren aurkezpenaren tailerrera eta gutxienez ikasgelako-praktiken eta eskola teoriko guztien %80ra bertaratu behar da, hala nola planifikatutako jarduera guztiak egin behar dira.

Azken kalifikazioa ebaluazio-jarduera ezberdinen bitartez lortutako noten haztapenetik aterako da. Azken kalifikazioa lortzeko beharrezkoa da honakoak 5 edo nota altuagorekin gainditzea: I. eta II. unitateko idatzizko probak, balorazioaren aurkezpena, II. unitatearen testa eta zeharkako gaitasuna. Mintegietan eta I. unitatearen beharren test-proban (Socrative) lortutako kalifikazioak gainerako notekin batzbestekoa egiteko balio ahal izango dute, baldin eta 4 edo nota altuagoa badute.

Ebaluazio-jarduera guztiek ikaslearen gidan jasota dauden errubrika bat izango dute lagun, haiei dagozkien adierazleekin eta deskriptoreekin (eGelan eskuragarri).

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1	IE1, IE2	Klase teorikoak, Mintegiak, Tailerra	1. unitatea: Behar bakoitzaren testa (Socratica)	%5
G1	IE2, IE3		14 beharren balorazioaren aurkezpena	%10
G1/ ZG	IE1, IE2, IE8/ IE7		I. unitatearen proba idatzia: Garatzeko 5 galdera*	%30 / + %5 ZG
G2	IE4	Klase teorikoak, Ikasgelako praktikak	Testa II. unitatea amaitutakoan	%10
G2 / ZG	IE3, IE5, IE6, IE8 / IE7		II. unitatearen proba idatzia: kasu kliniko bat ebaztea	%30 / + %5 ZG
G1, G2	IE9	Klase teorikoak, Mintegiak, Tailerra, Ikasgelako praktikak	Parte-hartzea eta ikasketarekiko konpromisoa	%5

\*Oharra: ikaslea I. unitateko proba idatzira aurkeztu eta gero, ezin izango zaio azken probako ebaluazioko sistemari atxiki, eta ezin izango dio deialdiari uko egin.

### **EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA**

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatutak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAAren argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

I. unitateko idatzizko probara aurkeztu diren ikasleek ezin izango diote ebaluazioari uko egin.

### **OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA**

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat. Justifikatutako arrazoiak direla-eta ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarra eskatu ahaliko dute, zeinak ikasgaiaren notaren %100 balioko duen. Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek dira: lan-arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo 3 urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak %33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jarduera artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jarduera sindikalak izatea, ikasleen ordezkartze aritzea, GKEak edo beste batzuk.

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio irakasgaiaren irakasle arduradunari, 2021-2022 ikasturteko irakasgaiari dagokion seihilekoaren 9. astea baino lehen.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	% KALIFIKAZIO GLOBALA
G1	IE2, IE3	Klase teorikoak, Mintegiak, Tailerra	14 beharren balorazioaren aurkezpena	%10
G1/ ZG	IE1, IE2, IE8/ IE7		I. unitatearen proba idatzia: Garatzeko 5 galdera	%35 / + %5 ZG
G2	IE4	Klase teorikoak, Ikasgelako praktikak	Testa II. unitatea amaitutakoan	%10
G2 / ZG	IE3, IE5, IE6, IE8 / IE7		II. unitatearen proba idatzia: kasu kliniko bat ebaztea	%35 / + %5 ZG

Azken kalifikazioa lortzeko beharrezkoa da gaitasunei (espezifikoa eta zeharkakoa) atxikitako jarduera guztiak 5 edo nota altuagoarekin gainditzea.

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

Salbuespen gisa, ikasleek 14 beharren balorazio-proba eta II. unitateko test-proba ebaluazio jarraiturako planifikatutako egunetan egin ahal izango dute; horretarako, ikasle bakoitzak irakasle arduradunari eskaera egin beharko dio posta elektronikoz. Hala ere, gogoan izan behar da behin balorazioaren aurkezpena eginda eta/edo II. unitatearen testa burututa, ikasleak ez badu amaierako azterketa egiten, irakasgaiaren amaierako notan ez gainditua agertuko da, konbokatoria bat agortuz.

### **EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA**

Ezohiko deialdiaren bidez, ikasleek ohiko deialdian gainditu ez dituzten probak gainditu ahal izango dituzte. Ohiko deialdian gainditutako proben kalifikazioak gordeko zaizkie, bai ebaluazio jarraituko ikasleei bai azken proba hautatu dutenei. Ohiko deialdian erabilitako irizpide berak erabiliko dira.

Deialdiari uko egiteko nahikoa izango da hartara ez aurkeztea.

Azken kalifikazioa “ez-gai” bada, kalifikazio partzialak ez dira hurrengo ikasturterako gordeko, eta ez dira matrikula berrian kontuan hartuko.

## INFORMAZIO-ITURRIAK

### Oinarrizko bibliografia

- \* Ruiz de Alegría B, Ulibarri A, Zarandona J, Fernández de Gamboa I. Oinarrizko beharrak. Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate-Eskolako barne-dokumentua; 2011.
- \* NANDA International Diagnósticos Enfermeros. Definiciones y clasificación 2021-2023. Bartzelona: Elsevier; 2021.
- \* NANDA International. Erizaintza-diagnostikoak. Definizioak eta sailkapena. 2009-2011. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua; 2010.
- \* Alfaro-LeFevre R. Aplicación del proceso enfermero. Fundamentos de razonamiento clínico. 8. ed. Bartzelona: Lippincott Williams & Wilkins; 2014.
- \* Alfaro-Lefevre R. Pensamiento crítico, razonamiento clínico y juicio clínico en enfermería. Un enfoque práctico. 7.ed Bartzelona: Elsevier; 2021.

### Sakontzeko bibliografia

- \* Actividades de la vida diaria. Infermera Virtual. Bartzelona: Colegio Oficial de Enfermería de Barcelona; 2009. Hemen eskuragarri: <https://www.cuidando.org/infermera-virtual/>
- \* Luis MT. Los diagnósticos enfermeros. Revisión crítica y guía práctica. 9.ed Bartzelona: Elsevier Masson; 2013.
- \* Higgs J, Jensen GM, Loftus S, Christensen N. Clinical Reasoning in the Health Professions. 4th edition. Oxford: Butterworth Heinemann; 2019.
- \* Pesut DJ, Herman J. Clinical Reasoning. The Art & Science of Critical & Creative Thinking. New York: Delmar Publishers; 1999.
- \* Lunney M. Razonamiento crítico para alcanzar resultados de salud positivos. Bartzelona: Elsevier Masson; 2011.
- \* Johnson M, Moorhead S, Bulechek G, Butcher H, Maas M, Swanson E. Vínculos del NOC y NIC a NANDA-I y diagnósticos médicos. Soporte para el razonamiento crítico y la calidad de los cuidados. Bartzelona: Elsevier Mosby; 2012.
- \* Butcher HK, Bulechek GM, Dochterman JM, Wagner CM. Clasificación de Intervenciones de Enfermería (NIC). 7. ed. Bartzelona: Elsevier; 2018.
- \* Moorhead S, Swanson E, Johnson M, Maas ML. Clasificación de Resultados de Enfermería (NOC). Medición de Resultados en Salud. 6. ed. Bartzelona: Elsevier; 2018.

## OHARRAK

2018ko maiatzaren 24ko UPV/EHUko Graduak Batzordeko akordioaren arabera, irakasgai hori gainditzeko aurrebaldintza da 4. ikasturteko Praktikumetan matrikulatzeko.

Irakasgaiaren hasieran matrikulatutako ikasle bakoitzak, dela ebaluazio jarraituaren sistemari dela azken ebaluazioarenean, eGela plataformaren bidez honako hauek izango ditu eskura:

- Irakasgaiaren inguruan informatzeko dokumentazioa: irakaskuntza-gida, ikaslearen Gida, saioen kronograma.
- Irakasteko materiala: Virginia Hendersonen 14 beharrak, ikasteko jarduerak, kasu klinikoak, hala nola aurkezpen grafikoak.
- Orientatzeko dokumentazioa: jarduera-mota bakoitzerako ikasle bakoitzak jarduera horiek egitean lagunduko dion informazioa izango du eskura.
- Ebaluazio jarraiturako sarbidea: ikasle bakoitzaren konfidentzialtasunari eutsiz, ikasle bakoitza ebaluazio-jardueretan hark lortutako kalifikazioetara sartu ahal izango da.

Material eta informazio hori guztia lagungarria izango da gaitasunak lortzeko eta ebaluazio-jarduerak gainditzeko.

## TUTORETZAK

Irakasgaiaren tutoretza-saioak eskatzeko irakasleei mezu elektronikoa bat bidali beharko zaie: [ainhoa.ulibarriochoa@osakidetza.eus](mailto:ainhoa.ulibarriochoa@osakidetza.eus) edo [jagoba.zarandona@ehu.eus](mailto:jagoba.zarandona@ehu.eus). Edonola ere, tutoretzak 3-4 ikasleko taldeetan eskatzen saiatuko dira ikasleak. Tutoretza-saioen xedea ez da huts egindako eskola presentzialak ordezkatzeko.